

Kostuen egitura

- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?
 - *Kostu finkoak*, oraingoz, lokalaren alokairua eta webgunearen hostinga, medikuaren soldatak, mantentze-lanak eta konponketak, babes zibileko aseguruak ura eta elektrizitate zerbitzuak dira.
 - *Kostu aldakorak*, tratamenduak, botikak, tresnak, hornidura mediko espezifikotan erabili eta botatzeko material medikoa... salmenta-bolumenaren araberakoak dira.

Gure enpresa sortzeko hasierako inbertsioaren kostua adierazgarria izan daiteke, eta hainbat faktoreren arabera aldatu daiteke, beraz, garrantzitsua litzateke azterketa zehatz bat egitea eta hasierako gastuak kontu handiz kalkulatzeko. Hasierako inbertsioaren prezioa eskutik joan ez dadin, prozesuak optimizatzea, lana eraginkortasunez kudeatzea, langileei onura alternatiboak eskaintzea, lan-arriskuak prebenitzea eta kostu operatiboak optimizatzea erabaki dugu, kostuak minimizatzeko eta errentagarritasuna hobetzeko.